



# SHISHA PAGMA IGO GABE ETXERA

Edurne Pasabanek uko egin dio bere 13. zortzimilakoa izango zena igotzeko asmoari, haize bortitza zela eta »4

TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO

# hitza



Osteguna  
2009-10-15

VIIURTEA 1.801.ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

## Landa eremuko emakumeen egoera ezagutzeko diagnosia egin dute

**TOLOSA** Landa Eremuko Emakumeen Eguna izaki, gaur aurkeztuko dute Bedaion eta Tolosako Kultur Etxean

**LANA** Landa auzoetako 15 emakumeren lekukotzak biltzen ditu 30 minutuko iraupena duen dokumentalak 3



Arrate Iturbe, Onintza Lasa, Arantxa Sorrondegi, Olatz Peon eta Josebe Iturrioz. I. TERRADILLOS



Solupe, Irizar, Arretxe eta Bildarratz atzoko aurkezpenean, Donostian. E. EZEIZA

## Australiako talde bat, lehen aldiz Abesbatzen Lehiaketan

**TOLOSA** Hilaren 28tik azaroaren 1a bitarte ospatuko da; ez da euskal ordekaririk izango 2



HITZAK harpidedun batentzat  
sarrera pareta du

**Gazte Eguneko bazkaria**

Urriak 17 • Larunbata • 14:00etan • Leitzan



sarrerak

HITZAK 2 harpidedunentzat  
2 sarrera pareta ditu


**Cocidito Madrileño 2**

Urriak 17 • Larunbata • 20:30ean  
Tolosako Leidorren



TXOKOA hitza

sarrerak eskuratzeko deitu 943-65 56 95 telefono zenbakira harpidedun kodea eskura duzula



Atzo aurkeztu zuten 41. Abesbatza Lehiaketa Donostiako Koldo Mitxelena Kulturunean; bertan izan dira: Bildarratz, Arretxe, Solupe eta Irizar. E. EEZIZA

## Lehen aldiz Australiako ahotsak entzungo dira Abesbatza Lehiaketan

**Kultura** » Hilaren 28an hasiko da lehiaketa eta azaroaren lehen amaituko; 41. edizio honetan ez da euskal ordezkariarik izango.

### ESTI EEZIZA

Bost kontinenteetako abesbatza onenen biltoki izango da beste behin ere Tolosa. Hilaren 28an hasiko da 41. Abesbatza Lehiaketa. Oraingo honetan, 16 herrialdeetako 21 abesbatza ariko dira lehiaketa. Irabazleak, datorren urtean, Varnan (Bulgaria) jokatuko den Europako Grad Prix-ean parte hartzeko txartela eramango du.

Atzo aurkeztu zuten lehiaketa Donostiako Koldo Mitxelena kulturunean. Ohikoa den bezala, bertan izan ziren, Ana Arretxe, Tolosako Ekinbide Etxeko Lehendakaria; Jokin Bildarratz, Tolosako alkatea; Haritz Solupe, Foru Aldundiko Kultura Sustapeneko eta Hedapeneko zuzendaria eta Mikel Irizar, Kutzako ordezkaria.

Egun bizi den krisi garaia behin baino gehiagotan izan zen aipagai

atzo aurkezpenaren. Bertan, Ana Arretxek azaldu baitzuen, testuinguru honetan egonda, aurtengo jaialdiak zenbait aldaketa izango dituela.

Abesbatza Lehiaketaren ezagarrri nagusietako bat kalitatea da. Hori dela eta, aurtengo egiten den esfortzua ere kalitateari eta nazioartekotasun horri eusteko. Abesbatzen egoeraz ere mintzatu zen Foru Aldundiko ordezkaria, eta azaldu zuen mundu hau berrizteko bide egokia dela jaialdiarena. Izan ere, bere esanetan, «harrobia egon arren, publikoa zirikatuta beharra dago, eta aldi berean ongi zaindu».

### Sydney Chamber Choir

Urtero, ahalik eta herrialde gehien ordezkatzeko dituzten abesbatzak ekartzen saiatzen dira Tolosako Ekinbide Etxekoak. Orain arte, Ozeaniako zenbait talde ekartzea lortu zuten, baina ez Australiako-

rik. Azkenik, helburu hau aurtengo da.

Munduko beste puntatik, Australiatik dator lehiaketan parte hartzera, Sydney Chamber Choir. 12 emakume eta 12 gizonen osatzen dute taldea eta Paul Stanhope da zuzendaria. Hauak polifonia eta folklore atalean lehiatuko dira.

1975ean eratu zen taldea, Australiako errenazimenduko musikaren eta batez ere, Josquin des Prezen errepertorioaren interpretatzen osatuenetako batean bihurtu zen laister. Abesbatza honek musika onena feskotasunez eta edertasunez interpretatzen du.

### Motorrak berotzeko, Abesbatzen Topaketak

Gipuzkoako Abesbatzen Federazioak antolatuta, eta Txapelketa-rako motorrak berotzen hasteko, Abesbatzen Topaketa ospatuko da. Hau, hilaren 24an izango da San Frantzisko elizan, eta bertan Gipuzkoako hiru abesbatza entzuteko aukera izango da, tartean, eskualdeko bat, Alegiako Txintxarri hain zuzen ere. Beraiekin batera izango dira, Oñatiko Ganbara Abesbatza eta Nayade abesbatza. Azken hau Irun eta Hondarribiako 10 abeslariz osatua dago.

20:00etan hasiko da ekitaldia, eta bertan aurkeztuko da ere, 41. Abesbatza Lehiaketa bera.

### Tolosatik hainbat tokitara

Eskualdeko hiriburuan ez ezik Euskal Herriko nahiz Espainiako hainbat txokotan ere izango da abesbatza hauek gozatzeko aukera. Izan ere, lehiaketan parte hartuko duten taldeek, beste zen-

bait emanaldi ere eskainiko dituzte. Denera 90 kontzertu izango dira.

### Euskal ordezkariarik ez aurtengoan

Joan den urtean bi abesbatza euskaldunek hartu zuten parte lehiaketan, baina oraingoan ez da bertako ordezkariarik izango. Arretxeren hitzetan, «zaila da Tolosan lehiatu nahi duten taldeak topatzea, exijentzia maila oso oso altua baita. Hala ere, aurreratu zuten, datorren urtean euskal abesbatza bat behintzat lehiatuko da, eta hementik beste bira, beste bat».

Arretxeren ustetan, euskal abesbatzarik ez egoteak ere erakusten du, lehiaketaren maila. «Europa mailan egiten den txapelketa da, eta asko prestatu beharra dago, horrelako jaialdi batean parte hartzeko. Gainera, etxean jokatzek abantaila batzuk baditu, baina presioa ere izugarrikoa da».

### Krisiaren ondorioz, zenbait aldaketa

Krisi ekonomikoaren tesuinguan aurkitzen da aurtengo Abesbatza Lehiaketa. Hori dela eta, honek eragina izango du jaialdian. Ana Arretxek, TEEko lehendakariak agertutakoaren arabera, «kalitatean ez da murrizketarik gongo, ezta lehiaketan parte hartuko duten abesbatzen kopuruan ere, baina bai, ekitaldian». Hala, aurtengo lehiaketan parte hartuko duen kartelaren aurkezpenik egingo, ezta urtero egiten den kontzertu berezia ere.

600.000 euro inguruko aurrekontua du Tolosako 41. Abesbatza

### » ZENBAIT DATU

#### Parte-hartzaileak

- **Daarles Vocal Consort.** Alemania. Musika erlijioso eta profano atala.
- **Via-nova-chor.** Alemania. Polifonia eta folklore atala.
- **Sydney Chamber Choir.** Australia. Polifonia eta folklore atala.
- **Cor Infantil St. Cugat.** Herrialde Katalanak. Haur abesbatzak.
- **Ondrasek Czek Children's Choir.** Txekiar Errepublika. Haur abesbatzak.
- **Primavera Children's Choir.** Txekiar Errepublika. Polifonia.
- **Choeur de Chambre du Maine.** Frantzia. Polifonia eta Folklore atala.
- **Wishful Singing.** Herbehereak. Musika erlijioso eta profanoa.
- **Discantus Vocal Ensemble.** Hungaria. usika erlijioso eta profanoa.
- **Coro Musicanova.** Italia. Polifonia eta Folklore atala.
- **PVD Ensemble.** Japon. Musika erlijioso eta profanoa.
- **Yuuka Choir.** Japon. Polifonia eta Folklore atala.
- **Riga Cathedral Girls Choir.** Letonia. Haur abesbatza.
- **Swedbank Chamber Choir.** Letonia. Polifonia eta Folklore atala.
- **Lacrymosa Children's Choir.** Moldavia. Haur abesbatza.
- **Chamber Choir Gneis.** Norvegia. Musika erlijioso eta profanoa.
- **Norwegian chamber Singers.** Norvegia. Polifonia eta Folklore atala.
- **Il. Suono.** Erresuma Batua. Musika erlijioso eta profanoa.

#### Epaimahaia

- **Peter Broadbent.** Erresuma Batua.
- **Bernd Englbrecht.** Alemania.
- **Ko Matsushita.** Japon.
- **Xabier Sarasola.** Euskal Herria.
- **Maris Sirmis.** Letonia.
- **Soma Szabo.** Hungaria.
- **Wilma ten Wolde.** Herbehereak.

#### Sarrerak

- Gaurtik salmentan daude sarrerak. Kutzak sarrera banaketarako dituen hiru bideen bitartez egin ahal izango da erosketak: Servikutxan, Telekutxa (943.001200 telefonoaren bidez) eta internetez, [www.kutxa.net](http://www.kutxa.net) ataritik. Sarrerak salgai egongo dira ere hilaren 17an eta 18an, Leidor antzokiko lehiatilan, 17:00etatik 19:00etara eta Lehiaketako saiotan zehar. Helduen sarrerak 10 euro balio dute, eta haurren, 4 euro.

Lehiaketak, hau da, iazkoaren antzekoa. Hala ere, Arretxek argitu zuen, zenbait erakunde aurtengo laguntzarik ez ematea erabaki dute, eta beste erantzun batzuen zain ere badaudela. Datorren urtera begira berriz, krisiak jarraituko duela aurreikusten dute, eta agian, lehiaketan bertan murrizketak egin beharko dituzte, parte hartzen duten abesbatza kopurua jaitziz.

## Iragarki laburrak

### AURKITUTAKOAK

■ **Arropa.** Larunbat iluntzean, hilaren 10ean, mutilentzako arropaz betetako poltsa bat aurkitu nuen Villabonako Olaederra kiroldegian ondo kokatuta. Galdu duenak dei dezala 943 65 56 95 telefono zenbakira.

### GALDUTAKOAK

■ **Makila.** Urriaren 10ean Lizarrus-tin Leandro izena grabatua dararaman makila galdu nuen. Norbaitek aurkitu badu, deitu dezala 635 74 40 82 edo 676 86 54 17 zenbakira. Aurkitzen duena sarituko da. Mila esker.

## Perretxiko eta onddoen nahaskia dastatzeko aukera azokan

**Gastronomia** » Lasa Anaia saltzaileak jarriko dira Zerkusia kalean platera prestatzen herritarrentzat.

### ERREDAKZIOA

Larunbateroko Tolosako Azokak aurrerantzean beste osagai bat gehiago izango du herritarrek bertara joateko. Izan ere, onddo garaia den honetan, jaki preziatu hau dastatzeko aukera izango da larunbatean, Zerkusiko merkataun.

Larunbateroko merkatuan asko ikusten den produktua izanik, produktu hau saltzen duen Lasa Anaia saltzaileak hau aprobetxatu eta perretxiko eta onddoen nahaskia prestatuko du Zerkusia kalean jarritako karpian. Aurten martxan jarritako ekimenarekin jarraituz, Zerkusia kalean bertan prestatuko dute produktua eta eguerdi aldean dastatzeko eman- goko dute.

## T Telefonoak Larrialdiak. ((112))

### OSASUNA.

**Alegialdea.** Osasun z.: 943 653212

**Anoeta-Alkiza-Hernalde.**

Medikua: 943 65 23 39

**Asteasu.** Medikua: 943 692423

**Baliarrain.** Medikua: 943 889003

**Berastegi-Elduain**

Medikua: 943 683361

**Bidegoian.** Medikua: 943 681134

**Ibarraldea.** Osasun etxea: 943 672411

**Ikaztegieta.** Medikua: 943 653329

**Irura.** Osasun zentroa: 943 690720

**Leitza.** Osasun z.: 948 510800

**Orendain.** Medikua: 943 655595

**Orexa.** Medikua: 943 682228

**Tolosa.**

**Anbulatorioa, larrialdi:** 943 461111

**San Esteban:** 943 006800

**Gernikako arbola:** 943 006900

**Amarozko dispen:** 943 672637

**Asuncion klinika:** 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

**DYA:** 943 672536

**Gurutze Gorria:** 943 674888

**Villabona.** Anbulat.: 943 006970

**Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 943 693930

### GARRAIOAK.

**Renfe:** 902 24 02 02

**Donostiako autobusa:** 943 361740

**Tolosalde bus:** 943 650621

**Leitzar an autob.:** 948 221015

**Taxia:** 943 670420

**Taxia (Leitza):** 608 873016

### BESTERIK.

**Ertzaintza:** 943 538820

**Tolosa-Udaltzaingoa:** 943 675858

**Tolamendi:** 943 650016

**Lurrerandi egoitza:** 943 670325

**Tolosa gasa:** 943 675320

**Alkoholiko anonimoak:** 943 248474

# Landa eremuko emakumeen egoera ezagutzeko diagnosia aurkeztu dute

## Genero berdintasuna »

Bedaion 19:30ean eta Tolosako Kultur Etxean 17:00etatik aurrera izango da ikusgai.

### INIGO TERRADILLOS

Landa Eremuko Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatzen da gaur, eta aurten estreinakoz, egun hau landa eremuan bizi diren emakumeen errealitatearen inguruan gogoeta egiteko baliatzea nahi dutela azaldu dute Tolodako Udaleko Berdintasun sailetik. Horretarako, *Ikus-entzunezko diagnosia* aurkeztuko dute gaur jendaurrean, bai herri gunean, bai eta landa eremuan ere, Bedaio auzoan eta Tolosako Kultur Etxean, hain zuzen ere.

Berpiztu egitasmoaren laguntzarekin garatu dute Berdintasun sailetik ikus-entzunezkoa. Farapi ikerketa taldea aritu da lanean, eta landa eremuko 15 emakumeren lekukotzak bildu dituzte bertan. «Errealitate desberdineko emakumeak irudikatzen dituzte, horregatik da interesgarria lan hau, ezezagun zaigun edo espero ez dugun zerbait erakusten digutelako», azaldu zuen atzo eguniko aurkezpenean Ointza Lasa Berdintasun zinegotziak.

Ikus-entzunezko honetan parte hartu duten emakumeek gaur bertan izango dute aukera emaitza ikusteko, landa eremuan bertan. Bedaion, 19:30ean eskainiko dute dokumentala, eta ondoren, eztabaida edo *word kafe* moduko bat egingo dute, gaiaren inguruan hausnarketa eta ideien elkartruketa, alegia. Landa eremuan ez ezik, herrigunean ere izango da ikus-entzunezkoa ikusteko aukera. Tolosako Kultur Etxean, 17:00etatik aurrera jarriko dute ikusgai 30 minutuko iraupena duen lana, beraz, herritarrek edozein unetan sartu ahaliko dira ikustera.



Berpiztu egitasmo arduraduna Arrate Iturbe, Ointza Lasa Berdintasun zinegotzia, Urkizu auzoko Arantxa Sorrondegi eta Josebe Iturrioz berdintasun teknikaria. I. TERRADILLOS

## Pausoz pauso

Gaur aurkeztuko duten lana bi urteko jardunaren emaitza da. «Dokumentala urte honetan egin dugu, baina 2008an landa eremuko emakumeek lanean hasi izanaren ondorio izan da», azaldu zuen Josebe Iturrioz berdintasun teknizinegotziak.

## Errealitate ugari dituzte landa eremuko emakumeek eta hori irudikatzen da lanean

kariak. Ikus-entzunezkoak 15 emakumeren lekukotzak biltzen ditu, Bedaio, Urkizu, Aldaba eta Aldaba Txikikoak, baina ikerketa lana egiteko, auzoetako emakume ugariaren adibidea hartu dute kontuan.

## Etenik gabeko lana

Emakume hauen lekukotzak biltzen ditu ikus-entzunezkoak, eta

«interesgarria da batez ere kaleko jendearentzat», azaldu zuen Olatz Peon Udaleko auzoetako arduradunak. «Landa eremuko emakumeek euren egoera ezagutarazi nahi dute, dituzten hutsuneen eta gabezien berri guztiek izan dezaten. Izan ere, egoera gutxinaka gutxinaka hobetuz badoa ere, auzoetan ahaztuak sentitu dira eta sentitzen dira oraindik, eta oinarri oinarritzko arazoak dituzte; eta noski aldi berean, emakumeek euren eguneroko zereginak izaten dituzte».

Arantxa Sorrondegi Urkizu auzoan bizi da, eta *Ikus-entzunezko diagnosiko* protagonistetako bat da. Baserritik bizitzea uste dena baino zailagoa dela dio, baina pixkanaka emakumeak elkartu eta lan egitearen ondorioz gauzak hobetuz doazela gehitzen du; «hori bai, hau lanaren hasiera baino ez da, eta jarraipena eskatzen du». Halaber, Sorrondegik eskerrak

## » DATUAK

■ **Lana.** *Ikus-entzunezko diagnosia* landa eremuko emakumeen errealitatea ezagutzeko. Landa eremuko 15 emakumeren lekukotzak biltzen ditu.

■ **Aurkezpena.** Bedaion, gaur, 19:30ean. Ondoren, gogoeta edo *word kafe* moduko egingo dute parte-hartzaileek taldea. Tolosako Kultur Etxean, 17:00etatik aurrera jarriko dute ikusgai 30 minutuko lana.

eman nahi dizkie ekimen honetan partu hartu duten guztiei.

Landa eremuko emakumearen errealitatea lehenengo pertsonak kontaktua ezagutzeko izan da lan honen helburu nagusietako bat, baina horretaz gain, hiriak eta landa eremua elkarren artean gerturatu nahi izan dira, horregatik, baita beste beste koei gonbidatu nahi diete dokumentala ezagutzera.

## ▣ Laburrak

### Bi ekintza asteberuan Oargi Mendi Elkartearekin

**MENDIA** ● Oargi Mendi Elkarteak bi ekintza egingo ditu asteberu honetan. Batetik larunbat goizean BTT txangoa egingo dute Tolosatik abiatu eta Belabietako magaletara. Parte hartzeko 667 600 917 (Alar) zenbakira deitu beharko da. Bestalde urriaren 10ean eguraldi txarragatik egin ezin izan zuten Txindokiko aristaren eskalada larunbat honetan egingo dute. Bertan parte hartu nahi duenak 688 698 642ra deitu beharko du.

### Musika Bandaren kontzertua, etzi

**MUSIKA** ● Tolosako Musika Bandaren urte osoko egitarauaren barruan, larunbatean udazkeneko kontzertua eskainiko du, 19:30ean Zerkusian. Enrique Arostegiren zuzendaritzapean askotariko besteak izango dira entzungai. *Ronda en Castilla* pasodoblea, *Dansa Macabre*, *La boutique fantaseque*, *Jungle* eta *La torre del oro* izango dira, hain zuzen ere, Musika Bandako musikariek joko dituzten obrak.

## Sei Urte, & The Fans, Set eta Linea 2 Bonberenean

### ERREDAKZIOA

Lau talderen kontzertuez gozatzeko aukera izango da asteberuan Bonberenean, Sei urte, The Fans, Set eta Linea 2 taldeena, hain zuzen ere.

Sei Urte eta & The Fans taldeak bihar ariko dira, 22:30etik aurrera. Sei Urte talde Berriztarra disko berria aurkezttera dator, 4 izeneko *& the Fans* taldea «lagungarri ona» izango da eta gau on bat pasatzeko

aukera emango die bertaraten direnei.

Etzi, berriz, 22:30etik aurrera, Set taldea eta Linea 2 ariko dira. Set talde bermeotarrak rock-popa jorrazten dute, eta euren lehenengo disko aurkeztuko dute, *Hoy es siempre todavía* izeneko, hain zuzen ere. Linea 2 taldea, bestalde, Basauritik dator eta Set taldearen bikote izango da Bonberenean gau honetan.

# Edurne Pasabanek uko egin dio Shisha Pagmari

**Tolosa** » Haize bortitza zela-eta atzo bertan hartu zuen erabakia tolosarrak; bi gailur falta zaizkio 14 zortzimilakoak osatzeko.

## ERREDAKZIOA

Edurne Pasaban (Tolosa, 1973) Shisha Pangma (8.027 metro) igotzeko ahaleginean ari zen, baina atzo bertan asmo horri uko egin behar izan zion, haize gogorak daudelako. Iragarpenek ere datozten egunetarako albiste txarrak zizuten, hilaren 20ra arte 60-80 kilometro orduko haize boladak iragarri baitituzte.

Honenbestez bere 13. zortzimilakoa bete gabe itzuliko da etxera Pasaban, berarekin dagoen Asier Izagirre tolosarrarekin batera. Laugarren aldia da mendi hori igo-

tzen saiatu dena; iparraldeko aurpegitik birritan ahalegindu izan da eta hegoaldekoetik ere bi aldiz.

Pasabanek hamalau zortzimilakoetatik hamabi igo ditu: Shisha Pangma eta Annapurna (8.091 metro) baino ez zaizkio falta. *Al Filo de lo Imposible* telebista saioko taldearekin joan ziren Pasaban eta Izagirre gailurra egitera, Ferran Latorre eta Alex Chiconekin, besteak beste.

## Oh Eun-Sunek hamahiru gailur ukitu ditu

Oh Eun-Sun hegokorearrak ere hamahiru zortzimilako ditu osatuta; horietatik hamar, azken hiru urteetan. Shisha Pangma soilik falta zaio, eta han dago bera ere. Gailurra lortuko balu, Edurne Pasabanek 14 zortzimilakoak lortzen duen emakumea izateko ohorea galduko luke.

# Emakumea Pilotariko 3. jardunaldia Tolosan eta Villabonan

## ERREDAKZIOA

Etzi, larunbatean, IV. Emakumea Pilotari txapelketako hirugarren jardunaldia jokatuko dute Villabona eta Tolosako pilotalekuetan.

Guztira 7 partida jokatuko dituzte 3. jardunaldian, 16:00etan hasita; hiru Villabonan eta gainontzeko laurak Tolosako Beotibarren. Jardunaldiari 2. mailako neurketekin ekingo diote eta lehen mailako partidekin itxiko dute.

Tolosaldeak badu ordezkaria: Ainhoa Garmendia alegiarra 2. mailan eta Itsaso Urkizu berastegierra eta Nagore Arozena lizartzarra 1. mailan. Lehen mailan ordezeko lanak egiten ari den, eta une honetan Argentinan 22 urtez azpituen trinketeko munduko txapelketan dagoen, Maitane Aburuza zizurkildarra ere parte-hartzaileen artean dago.



Zumaiaiko San Pedro abesbatzak Alegia bisitatuko du larunbatean. HITZA

# Txintxarri eta Zumaiaiko San Pedro abesbatzak, elkarrekin

**Alegia** » Kontzertua eskainiko dute bi taldeek etzi, Joan Bataiatzailea Deunaren elizan, 19:45etik aurrera.

Zortzi abesti eskainiko dituzte Amaia Aldalurren zuzendaritzapean. Mari Karmen Azpeitiak lagunduko die pianoan. Eliz musikarekin hasiko dira.

## Zumaiaikoen egitaraua

Lehenbizi Tielman Susatoren *Signum* abestia; ondoren, XVI. mendeko Juan de Antxieta kompositore azpeitiarraren *O bone Jesu* abestuko dute, eta gero Luis Urteaga ordiziarraren *Ave Maria stella*. Segidan, euskarazko kantua eskainiko dituzte. Xabier Sarasola besaindarraren *Neskatx ederra* abestuko dute. Oskorriren doinuak ere kantatuko dituzte, David Azurza tolosarrak moldatutako *Gaztelugatxe*, hain zuzen. Euskal doinutegian oso ezaguna den beste euskal kantu batekin gozatuko dute entzuleek, *Maitaek gald egin zautan*; Javi Busto hondarribiarraren moldatutako darama kantu horrek.

Euren lanarekin bukatzeko, Julen Ezkurren bi abesti eskainiko dituzte bata bestearren atzean, *Aritz adarrean* eta *Katallin*, eta Antonio Machadoren poema ekarriko dute gogora *Cantares* kantuarrekin; Joan Manuel Serrat kantari kataluniarrarena da doina.

## Amaiera, batera

Azken hiru abestiak elkarrekin eskainiko dituzte bi abesbatzek. Mikel Mari Azpiatzuren *Hego haizea*, Mikel Laboaren *Nerea izango zen* eta *This little light of mine* kantu espiritualarekin amaituko dute.

Kontzertuaren ondoren bi abesbatzek afari-legea egingo dute.

## » ABESBATZA TRUKEA

■ **Noiz.** Urriaren 17an, larunbatean, 19:45ean.

■ **Non.** Joan Bataiatzailea Deunaren elizan.

■ **Egitaraua.** Alegiako Txintxarri abesbatzak lau abesti eskainiko ditu lehenik; ondoren Zumaiaiko San Pedro abesbatzak zortzi abesti eskainiko ditu. Ondoren bi abesbatzek elkarrekin hiru abesti kantatuko dituzte.

## ERREDAKZIOA

Txintxarri abesbatzak Zumaiaiko San Pedro abesbatzaren bisita jasoko du etzi, larunbaterekin. 19:45ean hasiko den emanaldian kantuan ariko dira bi abesbatzak, Joan Bataiatzailea Deuna ren elizan. «Musikan gaur egun egiten ari den lana erakustea eta entzuleentzat gozagarri izango den emanaldi bat eskaintzea» da abesbatzen topaketa horren helburua, antolatzailerak azaldu bezala.

## Atzeratutako emanaldia

Pasa den maiatzerako aurreikusitako hasiera batean kontzertu hau, baina, baina azken orduan bertan abesbatzako abeslarietako bat hil egin zelako. Txintxarri abesbatza udaberrian izan zen Zumaian, eta orain zumaiairren txanda da.

Lehendabizi etxekoaren txanda izango da; Txintxarri abesbatzakoek Lau abesti eskainiko dituzte guztira Garbiñe Orbegozoren zuzendaritzapean. Christopher Tye XVI. mendeko kompositore ingelesaren *Laudate nomen domini* eskainiko dute aurrea. Segidan, Felix Mendelssohnen *Abschied vom walde* kantatuko dute alemanez. Musika arloan Erromantizismoaren aitzindaritzat jo izan da Mendelssohn. Ondoren, Aita donostiak jasotako euskal kantu ezagun bat abestuko dute, *Bortian Ahizki*. Zuberoako mendiari aipamena egiten dio kantu horrek; mendi inguru hartan dagoen grabatu batean kantua lehen hitzak jasota dute: *Bortian Ahizki hur hunak osoki...* Xabier Sarasolak Txintxarri abesbatzari eskainitako *Zure boza* kantuarrekin amaituko dute Txintxarrikoek.

Ondoren, Zumaiaiko San Pedro abesbatzak hartuko du lekukoa.

**mantangorri** rekin

**Zinema etxean 4**

Larunbat honetan

Gipuzkoan eta Nafarroan

berria + 4.90 €

HARPIDEDUNENTZAT, BILDUMA OSOA 26 €  
ESKARIA EGITEKO: 943 30 43 45, harpidetza@berria.info, edo www.berria.info

Babeslea: EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA SARA Hitza eta Berria Sarekoak

aukera ezazu, BIZI euskaraz **berria**



## TURISMOAREN KALITATEA

# «Berrantolatzeko eta etengabe hobetzeko balio izan digu Kalitatearen Q-ak»

Euskadin jada 267 dira Turismo Kalitatearen Q-a duten establezimenduak. Zerbitzua, azpiegiturak eta kudeaketa egokia ziurtatzen du egiaztagiria. Horren adibide da Zeraingo Turismo Bulegoa. 2007an lortu zuen Turismo Kalitatearen Q-a, eta bai barne antolaketari dagokionean bai eta kanpora begira eskaintzen duen zerbitzuari dagokionean berrantolatu eta etengabe hobetuz joateko aukera eman die. Miren Makazaga da bertako arduraduna.

### Zeintzuk izan dira turismoarekin loturiko kalitatezko sistema eta programak aukeratzeko arrazoi nagusiak?

Zeraingo Turismo Bulegoan urte dexente generamatzen bertara gerturatzan ziren bisitari harrera eginez. Bisitari hauen kopurua gorantz zihoan heinean, turismo bulegoaren eginbeharrak ere gehiago ziren, teknikari gehiago ari ziren bertan lanean, eta berrantolatzeko baten beharra ikusi genuen. Garai hartan, Eusko Jaurlaritzak Turismo Kalitatearen Q-a lortzeko ikastaro bat antolatu zuen, eta gure beharrek bat zetorrelakoan sartu ginen Kalitatearen mundu honetan.

### Ze onura izan du turismo bulegoarentzat Turismo Kalitatearen Q-a lortzeko?

Lehen aipatu bezala, barrura begira Turismo Bulegoa berrantolatzeko balio izan digu, eta kanpora begira berriz, izea edo prestigioa eman diola uste dut. Momentuan Goierrri eskualdean beste turismo bulegorik ez baitago Q-arekin.

### Barne antolakuntzan, kudeaketan eta azpiegituran ze onorio izan dituzue?

Zenbait aldaketa egin behar izan ditugu Turismo Bulegoan. Bai gure antolaketan eta kudeaketan, baita azpiegituran ere. Orain Turismo bulegoan gauza bakoitzerako arduradun bat dago, eta teknikari bakoitzaren eginbeharrak zehaztuta daude. Baita telefonoa nola erantzun eta bisitari harrera nola egin, esaterako. Azpiegiturari dagokionez, alde ba-



tetik turismo bulegoa gune ezberdinetan banatua dugu, harrerara azkarra egiteko gunea, harrera pertsonalizatua egiteko gunea, autozerbitzu gunea...

### Bezeroari eskaintako zerbitzuari dagokionean hobekuntzak izan al dira?

Hori uste dugu. Bezeroei ira-

dokizunak eskatzen dizkiegu une oro. Inkesta eta kezak egiteko orriak ere eskuragarri dituzte. Honekin, etengabe hobekuntza bat nahi dugu, eta momentuz lortzen ari gara uste dugu.

### Zeintzuk uste duzue izan direla Q-aren prozesua abiatu zenu-

### tenetik landu dituzuen atalrik aipagarrienak?

Bakar bat esatea zaila iruditzen zait, asko baitira. Orokorrean agian, urte hasieran jarritzen ditugun helburuen atala aipatuko nuke. Bertan helburu batzuk finkatzeaz gain, hori lortzeko bete beharreko pau-

soak markatzen ditugu eta urte guztian zehar, ondo goazen hala ez aztertzen dugu. Baita ere aipatzekoa iruditzen zait, orain arte egiten ez genuen bezala, orain teknikarien formakuntzak hartu duen garrantzia. Eta beste asko ere aipa daitezke, asko diralako.

### Kalitatearen kultura sustatzeko ze aldaketa egin dituzue edo egingo dituzue?

Gure nahia, hasieratik, Zerainek herri bezala kalitatezko zerbitzu bat ematea izan da, ez Turismo Bulegoak bakarrik. Turismo Bulegoaren Q-a esanenezake lehen pausoa izan dela. Orain Zeraingo nekazal-turismo, jatetxe, museo, aterpetxe, sagardotegi... azken batean turismoaren alorrean lan egiten dutenak ere kalitate sisteman lanean ari dira. Gure asmoa pixkanaka denak Q-ra gerturatzea da, guk animatzen ditugu eta ahal den neurrian lagundu ere bai.

### Turismoan lanean ari direnei nola azalduko zenieke Kalitatearen Q-ak duen garrantzia?

Nik lan sistema bat dela esango nieke. Inplantatu bitartean lan pixka bat egin behar izan genuen, baina azken finean orain lana errazten digu. Nik dudarik gabe animatuko nituzke Kalitatearen Q-a lortzera.

### Q-arena bezalako sistema gomendatuko al zenuke?

Bai, egia esan nik Kalitatearen Q-a eta Praktika egokien gidaliburua ezagutzen ditut. Baina lehen aipatu bezala lan egiteko modu bat dira eta gomendagarriak iruditzen zaizkit.

Eusko Jaurlaritzak eta Turismoaren Euskal Agentziak, Basquetourrek, Euskalitekin lankidetzan, behar dituen tresnak eta laguntzak ematen dizkiote enpresaburuari, enpresa lehiakorragoa izan dadin, ondorengo programa hauen bitartez:

#### JARDUNBIDE EGOKIAK

Kalitatearekiko konpromisoa eta sentsibilitatea, hautatutako norakoetan turismo arloko profesionali zuzendutakoa.

#### TURISMO KALITATEAREN Q-A

Kalitate kudeaketaren sistemaren egiaztapena. Bezeroen iguripenen betekizunen bermea.


#### E.FQM BIKAINTASUN EREDUA

Erakundeek kalitatearekiko bikaintasuna aurrean jartzen dien programa.

JARRI  
TURISMO-KALITATEAREN  
Q-A  
ZURE ESTABLEZIMENDUAN!

94 607 75 86  
94 404 74 70

www.turismoa.euskadi.net  
www.euskalit.net



Argazki Rallyean argazki-kamera digitalarekin ateratako argazkietako batzuk; gaurtik aurrera ikusi eta bozkatu ahal izango dira Udaleko webgunean. HITZA

## Otaolak Olan «desterratzeko» eskatu dio Gorenari

### ERREDAKZIOA

Regina Otaola Lizartzako alkateak Peio Olan lizartzarra «desterratzeko eta espetxeratzeko» eskatu zuen asteartean Espainiako Auzitegi Gorenean izandako bistan. Peio Olanori bi urteetako espetxe zigorra ezarri zion Entzutegi Nazionalak eta astearteko saioa erabaki hori aurkeztutako helegiteak eztabaidatzeko egin zuten.

Auzitegi Goreneko fiskalak Olanoren bi urteetako espetxe zigorra sei urteetara luzatzeko eskatu zuen. Akusazio partikularrak ere gauza bera eskatu zuen «atentatu» delitua egotzita. Era berean, «destierroa» eta «kargu publikorik» ezin hartzea ere eskatu zuten.

Olanoren abogatuak, bere alde, eskaeraguztiak gaitzetsi zituen eta Olan lizartzarra dela eta Lizartzan bertan bizi dela nabarmendu zuen. Regina Otaola, berri, ez da Lizartzan bizi.

## Hondeamakina baten kontrako erasoa aldarrikatu dute

### ERREDAKZIOA

Ezezagunek irailaren 30ean, Ibarrran, AHTko lanak egiten ari den enpresetako baten hondeamakina bati su eman izana aldarrikatu dute *Berriari* igorritako ohar batean. Azaldu dutenez, «AHT proiektu txikitzailea» bultzatzen duten enpresak biltzen dira Benta Aundi ABEEen.

«Txikizioa bultzatzen dutenean, hau da, Amenabar, Fonorte, Adif, Uria... enprekin ezin da elkarlanean aritu!». Tren lasterrari buruz informazioagordetzen, manipulazten eta intoxikatzen dela eta AHTren egitasmoaren aurka egiten jarraituko dutela diote.

## TAOri buruzko eztabaida, hilaren 21ean

### ERREDAKZIOA

Ibarrako ezker abertzaleak argitu duenez, pasa den astean iragarritako TAOri buruzko eztabaida publikoa hilaren 21ean izango da, eta ez gaur. Bilera herriko jubilatuengoitzen izango da 20:00etan. «Bizilagun, merkatari, interesatu guztiak deia luzatzen diegu bertan parte har dezaten», esan dute.

# Armiamen zortzikoan atzetik

**Berastegi** » Aurtengoko Argazki Rallyan bi maila izan dira lehen aldiz; argazki-kamera digitala eta analogikoa.

### REBEKA CALVO

Pasa den asteburuan atera zituzten parte-hartzaileek argazki guztiak. Aurtengo Berastegiko Argazki Rallyan bi maila izan dira: argazki-kamera digitalarekin eta analogikoekin ateratakoak. Lehenan 17 pertsonak hartu zuten parte

eta bigarrenan, aldiz, 25. Gaia ostiralean bertan jarri zieten; digitala eraman zutenek armiamak izan zituzten ardatz eta besteek mandio, leiho eta ateak irudikatu behar izan zituzten.

Ez zuten egiteko samurra izan, egurali nahiko kaskarra izan zuten

eta euri jasan arteko tarreak baliatu behar izan zituzten askok argaki txukunak atera ahal izateko.

Parte-hartzaileek euren lana egin dute jada eta orain egiteko besteei, epaileei, egokitu diete. Epaile lanak Andoaingo zine eta bideo eskolak egingo ditu eta azaroaren 15ean izango den Azoka Egunean esango dute zeintzuk diren irabazleak maila bakoitzean. Azoka Eguna azaroaren 5etik 15era iraungo duen Kultur Astearen egingo dute.

### Bozketa ez loteslea webgunean

Herritarrek, hala ere, gaurtik hila-ren 25era bitarte ikusi eta bozka ditzakete argazki digitalak. Irudiak Udalaren webgunean jarri dituzte ([www.berastegi.com](http://www.berastegi.com)) eta bertan bozka daiteke, nahiz eta herritarren erabakia ez den loteslea izango. Lehiaketako argazki guztiak Kutur Astearen pilotaleku ondoko aparkalekuaren azpiko lokalean jarriko duten erakusketan ere ikusi ahal izango dira.

## Hilberriak

### ITXASO BERGARA AGÜERO

42 urterekin hil zen

Urak dakarrena  
urak daroa  
Zuk emandakoa  
gurekin gelditzen da

Maite zaitugu, zure lagunak

Agurtzane eta Mikel; Gurutze eta Mikel; Idoia eta Jaime; Idoia eta Edú; Begoña eta Joxe; Mari; Marijo eta Mijel; Arantzi eta Rikardo; Maialen eta Iñaki; Aintzane eta Felipe; Urra eta Koldo; Miren eta Xabier; Rakei eta Michael; Nerea eta Aitor; Nekane eta Josu.

AZPEITIA  
2009ko urriaren  
15a

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri  
eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan  
DOAN agertuko da

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu  
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

# Gazte Independentistek antolatutako Gazte Eguna debekatzea eskatu dute

**Leitza** » Espainiako Dignidad y Justicia elkarteak egin dio eskaera Auzitegi Nazionalari; honek ez du erantzun.

ASIER IMAZ

Gazte Independentistek nazio mailako Gazte Eguna antolatu dute etzizirako Leitza. Bertan Jarrairen 30. urteurrena ospatuko dute; 30 urte antolatzen eta borrokatzen! 30 urte ta independentzia lortu arte! lelopean.

Herenegun ordea, idatzi baten bidez, Dignidad y Justicia elkarteak ospakizuna debeka zezan eskatu zion Espainiako Auzitegi Na-

zionalari. Honek oraindik ez du erabakirik plazaratu.

Leitzako Gazte Eguna ondorengo ekitaldiek osatzen dute: 12:00etan harrera eta zintzur bustitzea; 14:00etan bazkaria; arratsaldean karaokoa eta 20:00etan kontzertuak. Eguerditik iluntzera berri, haurrentzako txokoa egongo da.

## «Debekuaren arrazoiak»

Dignidad y Justiziaren ustez, Jarrairen 30. urteurrenaren ospakizuna antolatu dutenak, hau da, Gazte Independentistak, «legez kanpo dauden Jarrai, Haika eta Segiren oinordekoak dira».

Aipatu elkarteak Auzitegi Nazionalak ospakizuna debekatzea

nahi du. Horretaz gain, etziko «ekitaldiak Segirekin lotura duela zehazteko», Polizia Nazionala eta Guardia Zibila ikertzen jartzeko agindua eman dezan eskatzen dio Espainiako Auzitegi Nazionalari.

## «200 debeku baino gehiago»

Dignidad y Justiziaren web orriari irakur daitekeenez, azken urteetan, «elkarteak 200 omenaldi baino gehiago debekatzea lortu du».

Debeku eskari horien artean irailaren 19an Arralden egitekoa omen zen Elkartasun Eguna aipatu behar da, izan ere, Dignidad y Justicia elkarteak ekitaldi hau debekatzea eskatu zuen; herri hau *Goenkale* telesailen bakarrik aurki daiteke.



Guraso Elkarteak ekitaldi ugari antolatzen ditu urtean zehar Areson. A. IMAZ

# Aresoko Guraso Elkartearen ikasturte berria

ERREDAKZIOA

Aresoko Guraso Elkarteak ikasturte berrirako hainbat ekimen jarri ditu abian. Oraindik erabat zehaztu gabe aurkitzen baldin badira ere, hona hemen egitaraua:

Ez dugu etsiko gainera, izan ere, aurten festetan oso ikuskizun polita egin zuten 4-13 urte bitarteko haurrek bi hilabeteetako entseguekin eta oso ilusionatuta gaude denak, bai haurrak eta bai gurasoak».

## Multikirolak eta psikomotritatea

Kirola Mankomunitatearen eskutik, astelehenetan multikirolak eta ostiraletan psikomotritatea, 16:30etik 17:30era.

## Ludoteka zerbitzua

Aurten ingelesez hasi dira haurrak eta «horrela jarraituko dute, egokitzuten badira behintzat». Asteartetan eta ostegunetan dago ludoteka zerbitzua: 16:30etik 17:30era.

## Dantza ikastaroa

Aurrera eraman nahi den ekimena da baina irakaslea aurkitzeko lanetan dabilta: «10 haurrek eman dute izena eta haur hauei irakatsiko dien norbait aurkitzen gabilta.

## Ikastaroak

Herriko Federazioak eskaintzen dituen ikastaroak, 3 zehazki, dohainik izango dira: «Berandu xamar ibili izan gara eta hauek seguruenik abendua, urtarrila eta otsailen izango dira, arratsaldeaz».

## Gaztain biltzea

Azken urteetako ohiturari jarraiki, eskolako haur eta gurasoak mendira joango dira hilaren 21ean gaztain bila (eguraldi txarra balitz 28an). Helburua, «urtaro honi dagozkion fruituen ezagutza, mendizalatasuna eta naturaren inguruko errespetua bultzatzea izango dira besteak beste. Azaroaren 6an gaztain jatea egingo dugu denak».



Iaz hasitako bideari jarraipena eman dio aurten ere ALKEK. 'II. Mikologialdia' antolatu dute hilaren 19tik 25era. I. URRUTIA

# 'II. Mikologialdia' hilaren 19tik 25era ALKEren eskutik

**Leitza** » Onddoen eta zizen inguruan hainbat ekitaldi antolatu ditu herriko kultur elkarteak, astebeteko egitarauan.

ASIER IMAZ

Altzadi Leitzako Kultur Elkarteak iaz jarri zuen martxan *Mikologialdia*, «urte askoren ostean». Denboraldi berriko lehen edizioa «xumea» izan arren, antolatzaileak «gustura» gelditu ziren lortutako emaitzarekin: «Jende ugari joan da mendira eta azkenean 93 espezie desberdin sailkatzea lortu dugu», aipatu zuten iazko ekitaldiaren amaieran.

Aurten *II. Mikologialdia* antola-

tu dute hilaren 19tik 25era, Udala- ren eta Mendibil mendi taldearen laguntzaz.

## Ezagutza bultzatuz

Mikologialdia onddoen eta zizen inguruan mugitzen den ekimena da. Bigarren edizio honetan ere leitzarrak mendira joango dira perre-

txikoen bila. Ondoren, haurrek bildutakoen marrazkiak egiten dituzten bitartean helduagoak onddo eta zizen sailkapenak egingo dituzte, txikien laguntzarekin. Azken egunean berriz erakusketak antolatu dituzte Karrapen. Aste guztiko lanaren emaitzak jarriko dituzte bertan ikusgai.

## » EGITARAUA

### Hilaren 19tik 23ra

■ **Herritar taldeek, sailetan, onddoak eta zizak bilduko dituzte.** Haurrek eskolan marrazkiak egiten dituzte.

### Hilaren 24ean

■ **09:30ean.** Mendi buelta haurrek onddo-zizak biltzera.

■ **Arratsaldean.** Bildutako onddozizen sailkapena egingo dute parte-hartzaileek.

### Hilaren 25ean


■ **11:00etan.** Karrapen erakusketatik mikologikoa, eskolako haurren marrazki lehiaketaren erakusketatik eta sorpresak.

# Leitzatik Nafarroa Oinezko autobusa

ERREDAKZIOA

Atebaltz Gaztetxeko kideek autobusa antolatu dute Nafarroa Oinezera joateko. Zerrendak Torren eta Gaztan jarri dituzte. Autobusez

joan nahi duenak 10 euro ordaindu beharko ditu eta izena emateko epea bihar amaituko da. Igandean 08:30ean irtengo da autobusa, markesinatik.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



13°  
3°

GOIZA EGUZKIA  
ARRATS. EGUZKIA  
BEROENA 13°  
HOTZENA 5°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko-hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosa@iragarri.net.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.  
**Ibarra:** 687 410 032. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Leizaldea:** 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

**BERTAKO HEDABIDEAK**

eta Tolosaldeko eta Leizaldea beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernalde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agurrak



### Urte askoan!

Atzo Manexek (hilak 14) eta bihar Norak (hilak 16) urtebete. Zorionak eta muxu handi bana amona Maria Doloresen partetik.



### Urte askoan!

**Gorka Beloki (Ugarte).** Gaur 8 urte. Ondo pasa zure urtebetetze egunean etxeko guztien partetik.

# agurrak

urtebetetzeak - urrezko ezteiak ezkontzak - jaioberriak jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitzaan: Udaletxeko bulegoa

## A Agenda

### Deialdiak

■ **Anoeta-Irura.** Loatzo Musika Eskolaren Anoeta eta Irurako baztarrak 19:00etan Anoetako udal areto nagusian.

### Kultur asteak

■ **Tolosa.** San Esteban auzoko Kultur Astea: 19:00etan VII. Patata Tortilla Lehiaketa, ondoren luntxa eta 22:30ean *Yo los mate, evidentemente* antzezlan, Jaime Ocañaren eskutik.

### Zinema

■ **Tolosa.** *La jungla 4.0* filma zineklubean, 19:00etan Bonberenean.  
■ **Tolosa.** *Tetro* filma Leidor aretoan 19:15ean eta 21:45ean, zine-forumean.

### Erakusketak

■ **Tolosa.** Natxo Barberenaren pintura erakusketak Aranburu Jauregian.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Morant, R. Zabalaretza, 1. 943 673649.  
■ **Leitza.** Campos, M.Z. Elbarren, 52. 112.

### » TELEBISTA

**28 Kanala**  
08:30. Klipak. 09:00. Muka-Muka.

09:30. Tolosaldean Gaur. 10:00. Gipuzkoa kultura. 10:30. Zarautz surf. 11:00. Wazemank. 11:30. Tolosaldean Gaur. 12:00. Golb tb 12:30. Artegitza. 13:00. Alex eta Alexis. 13:30. Tolosaldean Gaur. 14:00. Gipuzkoa kultura. 14:30. Zarautz surf. 15:00. Wazemank. 15:30. Tolosaldean Gaur. 16:00. Golb tb. 16:30. Artegitza. 17:00. Nonochan. 17:30. Tolosaldean Gaur. 18:00. Kalekantoian. 18:30. Erloklip. 19:00. Aizkolariak. 19:30. Tolosaldean Gaur. 20:00. Klipak.

\* (16:30etik 20:30era bitarteko blokea lau orduko errepikatuko da, 08:30etik arte).

### » IRRATIA

**Txolarre irratiak**  
10:45-11:00. Argia astekaria.  
11:00-13:30. Tolosaldeko Ahotza: Albistegia, Magazina, Lehiaketa eta disko eskainiak.  
13:30-14:00. Albistegia - Info 7.  
14:00-15:00. Tolosaldeko Albistegia.  
17:00-17:45. Musika nobedadeak.  
18:00-20:00. Tolosaldeko Ahotza (errepikapena).  
20:00-20:30. Albistegia, Info 7.  
20:30-21:00. Mintzatzen zinemari buruzko saioa.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneri eta iritzien erantzunik.

30 min  
10 te  
10 gla

Hizkuntza-Kudeaketa enpresan

Inskripzioa (beharrezkoa)  
www.imh.es - imh@imh.es  
Telefonoa 943 74 41 32  
IMH, Azkue Auzoa 1 - Elgoibar

Zertan arituko dira txekiar 1, katalan 1 eta 100 euskaldun IMHn urriaren 22ko goizean?

### Arrolatzailea

MAKINA ERREMITAREN INSTITUTUA

### Kolaboratzaileak

HIZKUNTZA POLITIKA SAHARBURUJORDITZA GIPUZKOARDO FORU ALDUNDIA ELGOIBARKO USALA ANZE-ANZ

15 hitzaldi + mahai ingurua: aukera itzazu zureak!

ADMINISTRADOREN HUSPEGIA  
EUSKO JAURLARITZA, NPS - I. Calzada  
GIPUZKOARDO F. ALDUNDIA - E.Aizorta  
ENPRESEN HUSPEGIA  
ADEGI - E.Zubiaurre  
EUROPAKO HUSPEGIA  
UOC ELAN.DAT - M.Strubell  
LINEE proiektuak Txekia - J.Nekvapil  
MALTHAZAHAREN HUSPEGIA  
ITP - A.Cendoya / K.Izquierdo  
Enpresen nazioartekotasun - A.Hizar  
HIZKUNTZA INDUSTRIEN HUSPEGIA  
DUALIA - J.M. Perez

INGURUNE ERDIALDUNEAN KOKATUTAKO ENPRESEN HUSPEGIA  
DOBLE SENTIDO - I. Aranbari  
GARBALDI - I.Zameta (Artez)  
FINANTZA ETXEN HUSPEGIA  
HEURGAILUA-KUTXA, ItzazuNPS, Auzopuz  
NAFARROKO KUTXA - X.Eriza  
BERRIKUNTZA ETA BERRIKETAREN HUSPEGIA  
EHU / IMH Mak.Erem. Sektorean Merkato  
DON BOSCOko praktikak euskaraz  
AHALMENTZIA - F.Narra (Elbuzar)  
FAGOR: 2 eta, 2 kanal - J.Polz (Eremu)

Informazio gehiago: [www.imh.es](http://www.imh.es)

